



PILULAK ETA ERREZETAK

PERTSONAK ETA ADIMEN LEHIAKORRA

Oarsoaldea



Jarrera landuz

Adimen lehiakorreko (AL) edozein sistemetan pertsonak dira gakoa, pertsonen arteko interakzioa ezinbestekoa baita berriak balioztatzeke, beraien esanahia eta inpaktua ulertzeko, ideiak edo ekintzak proposatzeko eta erabakitzeke.

Erakunde bateko pertsonak jarrera eroso edo beldurtia badute, nahiago izango dute ingurunea ez aldatzea, aldaketen seinaleek duten garrantzia gutxituko dute eta ez diete jaramonik egingo beranduegi izan arte.

Jarrera landuz



Asko sinplifikatuz, erakunde guztietan bi kontrako jarrerak daude:

Malgua edo geldiezina:

Ez dauka beldurrik eta aldaketari aurre hartzen dio

Ez da erosotasunean galtzen

jakin-mina dauka, edozein aukera aprobeztatzen du ingurunea aztertzeko

Aldaketek dakartzaten aukerak ikusten ditu

Zorrotza edo ohituretan murgildua dagoena:

Beldur da eta ez da aldaketetara egokitzen

Ohiturak sortzen ditu

Burugogorra da, aldaketen aurrean ezkutatu egiten da eta ezagutzen duena errepikatzen du

Ez ditu aukerak ikusten

Ez ditu aldaketak ikusi nahi



Jarrera landuz

Erakunde batean AL sistema bat ezartzeko, oinarrizko hiru baldintza daude:

- 1. AL sistemaren dinamizatzaile bat izendatu eta babestu**
- 2. Adimen talde bat eratu pertsona geldiezinak sartuz**
- 3. Aurrekontu txiki bat ezarri eta kontrol epeak ezarri aurrerapenak egiaztatzeko**

Adimen Lehiakorreko sistema bat ezartzean, beldurrik gabeko eta biziak diren pertsonen parte-hartzea ezinbestekoa da sistemaren eraginkortasuna bermatzeko.

Nola antolatu Pertsonak

Enpresa txiki eta ertainak (ETE) ingurunea modu sistematiko batean behatzen hasten direnean, informazioa kudeatzeko duten norberaren gabezia eta trebetasun eta gaitasun eskasaz konturatzen dira.

Egoera hau hobetzeko lau neurri:

FOKUA: Garrantzitsuenera argia zuzendu, erronka estrategikoak zaindu

KALITATEA: Balio handieneko iturriak erabili, kalitatea kantitatearen aurretik

PERTSONAK: Beraien parte-hartzea lortu, egiaztatze eta analisi zereginak banatuz

SINPLIFIKATU: Oinarrizko irizpideak erabili, konparatiboak eta laburpen fitxak sortu.

**Errezeta:
lantaldea erronka batekin**

Ezaguna eta interesgarria den erronka bateri zuzenduriko talde bat antolatu!

Inplikutzen, mugitzen diren pertsonak erabili eta elkarri eragiten eta garatzen utzi!

Errezeta: lantaldea erronka batekin

Erronka, taldeko kide guztiek identifikatu eta ulertu behar dute.

Erronka bera da, monitorizatu behar diren galdera garrantzitsuenak zehazten laguntzen duena.

Erronka mota askotakoa edo beraien arteko konbinazioa izan daiteke: ekonomikoa, teknologikoa, merkatuan zentratua, produktuan, zerbitzu batean edo nahasketa bat.

Erronka sinplea edo konplexua izan daiteke, xumea edo asmo handikoa, baina beti izan behar du interesgarria lantaldeko pertsonentzat.

Chefaren trikimailuak:

- Landu gabeko informazioekin sistema ez trabatu
- “Ezagutza”, hau da, hausnarketak eta ondorioak zabalarazi
- Interes zehatzeko datuak atera, zergatik diren interesgarriak azalduz
- Arituak ez direnei irakurketa erraztu
- Pertsona bakar baten ikuspuntua, normalean, mugatua eta partziala izaten da.
- Taldean egindako informazioaren analisia beti aberatsagoa izango da.
- Pertsona bakoitzak menperatzen duen horretan berrikuntza esanguratsuak identifikatzen, interpretatzen eta taldekideekin banatzen dituenean, taldeak ikasten du.
- Gai konplexu bat ez badu inork menperatzen, arazo zehatzagoak definitu behar dira.
- Bakoitzak ulertzen duenaren ekarpena egin, osotasuna ikusi arte.
- Egunero entrenatu eta praktikatu, AL ez da teoria bat, gimnasia bat baizik.
- Lantaldean lan egin beti, aztertzen, ideiak sortzen, aukerak antzematen
- Taula edo fitxa sinpleak baina erabilgarriak sortu erabakiak hartzen joateko

Rolak nola esleitu

AL sistema bat ondo funtzionatzeko, rol batzuk egotea ezinbestekoa da. Pertsonak identifikatzea eta bakoitzari eginkizun argiak egokitzea garrantzitsua da, bakoitzarengandik espero dena argi eduki dezaten.

Dinamizatzailea: AL sistema funtzionatu eta denborarekin hobetzen joatearen arduraduna da. Gerentziarekin eta parte hartzen duten pertsona guztiekin harremanetan dago. Rol hau kalitate sistemaren arduradunak bete dezake.

Rolak nola esleitu

Analistak edo adituak: Informazio iturri hoberenak identifikatzeko, aztertzeko eta balio handiko informazioak antzemateko irizpide onena duten pertsonak dira. Informazio iturriak ezagutzen edo nola ustiatu ez dakigunean, kanpoko informazio zerbitzu espezializatueta oinarritzea komeni da, baina azkeneko analisi estrategikoa beti barruko norbaitek egingo luke. Teknikariak edo komertzialak, analista lana egin dezake.

Erabakitzzaileak: Erabakitzzaile garrantzitsuena gerentzia da. Sistemaren bezeroa da, erronkak definitzen dituena, ze informazio mota behar duen eta erabakitze prozesuetan nork erabiltzen duen zehazten duena. Hala ere, edozeinek ondorioak atera ditzake eta erabaki operatiboetan erabili.

Administratzailea: Prozesuari euskarria emateko, informazio sistemak kudeatzen dituen informatikaria izaten da. Eginkizun hau ez da beharrezkoa izaten AL sistema kanpoko zerbitzari batean badago, hodeian.

Nola prozesatu AL ETE batean

Epea	Erronka	Zaintzaren faktore kritikoak	Beharrezko analisia	AL sistema
Laburra	Lehiaketa publikoak lortzea	Gure jarduerako lehiaketa publikoak monitorizatu	Antzemandako lehiaketen eskakizunak (kalitatea, homologazioak, finantzarioak, ...) ebaluatu	Alerta+ sintesi fitxa
Laburra	Aurreikusi gutxitu sozialetan krisiak	edo sare sozialetan esanguratsuenak monitorizatu	Egunero sare marka produktuen edo erasoak identifikatu, nor sortzen ditu, e.a. eta aurre egin	Gure marka alerta eta/edo krisiak erasoak nor sortzen ditu, e.a. eta aurre egin
Laburra/ertaina	Bezero nagusiak fidelizatu eta bezero berriak lortu	Bezero potentzialen eta bezeroen berriak antzeman	Ikusi eta aztertu bezeroen beharrak	Alertak
Laburra/ertaina	Bilatzailleetan kokatu ikusgaitasuna hobetu	eta bilatzailleetan monitorizatu	Gure web lekua bilatzailleetan monitorizatu	Ebaluatu eta alderatu edukiak, hitz gakoak, e.a. konpetentziarekin alderatuz

Nola prozesatu AL ETE batean

Epea	Erronka	Zaintzaren faktore kritikoak	Beharrezko analisia	AL sistema
Laburra/ertaina	Produktu/zerbitzu baten homologazioa mantendu	Ezarri behar den legea edo arauak monitorizatu	Produktu/zerbitzuaren zehaztapen eta eguneratzeen analisia	Alerta+sintesi fitxa
Laburra/ertaina	Nire enpresa/zerbitzua/produktua homologatu	Homologatuak dauden erakundeetako betebeharrak eta beraien eboluzioa monitorizatu	Antzemandako zehaztapenak ebaluatu eta bete	Alerta+zehaztapenaren laburpen fitxa
Ertaina	Lehengai osagaietan aurrezpena eta	Hornitzaile, osagai eta lehengai berriak monitorizazio	Antzemandako hornitzaile berriekin harremanetan jarri eta konparatiboak egin	Alerta+konparaketa fitxa
Ertaina	Merkatu batean sartu berri	Aktore garrantzitsuen berriak monitorizatu	Antzemandako bazkide posibleak bereizi eta konparatiboak egin	Alerta+konparaketa fitxa

Nola prozesatu AL ETE batean

Epea	Erronka	Zaintzaren kritikoak	faktore	Beharrezko analisia	AL sistema	
Ertaina	Beste osagarri elkartu indartzeko	enpresa batekin negozioa	Azoketako partaideak bazkide berrien	etaz eta potentzial monitarizazioa	Antzemandako bazkide posibleen osagarritasun maila bereizi, ebaluatu eta konparatu ahal izateko.	Alerta+konparaketa fitxa
Ertaina	Iritsiko joera/moda/olatu teknologiko/merkatu berrietan kokatu eta etekina atera	diren berriak	Azterlanak irakurri eta moda, teknologia berriak dituztenei behatu.	joera, e.a. eransten	Praktika onenak eta moda, joera, e.a. teknologia berrien eragozpen eta abantailak identifikatu.	Alerta+konparaketa fitxa
Ertaina/luzea	Negozio eredu diseinatu	berriak	Enpresa antzeman lider/lehiakideak behatu.	berriak eta	Estrategia, salmenta modu, negozio eredu berriak antzeman eta ebaluatu, inspiratu eta ideia berriak ateratzeko.	Alerta+konparaketa fitxa
Ertaina/luzea	Balio zerbitzu diseinatu eta atera	erantsia duten berriak	Zerbitzu antzema lider/lehiakideak behatu.	berriak eta	Lider, azken teknologien berriak e.a. aztertu, inspiratu eta ideia berriak ateratzeko.	Alerta+eztabaida+ Wiki

Oarsoaldea

ADIMEN LEHIAKORRA

WWW.OARSOALDEA.EUS



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Medio
Ambiente y Obras Hidráulicas



**Inteligencia
Competitiva**